

Lagun Izoztua

Joseba Sarrionandia

AIXERROTA BHI
Iker Sarasketa
2003-04

AURKIBIDEA

I JOSEBA SARRIONANDIA	2
II SARRERA	2
III LAGUN IZOZTUA	
1 LEKU DENBORAZKO KOKAPENA	3
2 GAIA	4
3 ISTORIAREN GERTAKIZUN NAGUSIEN SINTESIA EDO ARGUMENTUA	5
4 PERTSONAIK	6
5 BALIABIDEAK	9
6 TESTUTIK HARTUTAKO TXATAL ESANGURATSU BATEN AZALPENA	9
7 IRITZIA EDO NARRAZIOAREN ALDERDIRIK GARRANTZITSUENAK	10
IV BIBLIOGRAFIA	12

I JOSEBA SARRIONANDIA

1958an Iurretan jaiotako eta Euskal Filologian lizentziatutako idazlea da. Literatura eta zineari buruzko idazlan ugari idatzitako idazle bizkaitar hau Bergarako UNEDen fonetika irakaslea izandakoa ere bada. 1980 urte inguruan ETako kide izatea leporaturik kartzelaratu egin zuten eta bost urte geroago ihes egin zuen, klandestinitatean eta aberritik urrun bizitza berri bat hasiz.

Geroztik aurrera eta lehendik egiten zuen bezala hainbat literatur lan egin eta plazaratu ditu, magia, lilura, sentiberatasun eta exotismoz beteak. Hauen artean nabarmendu egiten dira: *Izuen Gotorlekuen Barrena* (1981), *Narraziok* (1989), *Ni ez Naiz Hemengoa* (1985), *Atabala eta Eurria* (1986), *Ez Gara Gure Baitakoak* (1989), etab. Bere poesiaren garapenaren gailurrean berriz *Marinel Zaharrak* (1987) eta *Kartzelako Poemak* (1992) nagusitzen dira. Azken urteotan ere idazten ibili da eta *Lagun Izoztua* (2001) eta *Kolosala Izango da* (2003) obrak plazaratu ditu.

II SARRERA

Lagun Izoztua Joseba Sarrionandia idazle erbesteratuaren azken lanetariko bat dugu. Lan honetan bizitza praktikoaz mintzo da kontakizunean hain jaioa dugun idazle hau. Bizitzan zehar hainbat galdera egin dizkiogu gure buruari: identitate propiorik edo erroturik badugu? (aberriaren auzian oinarriturik) Zer da maitatzea eta nola gertatzen da? Laguntasunaren mugak eta betebeharrak existitzen dira? Zer da bizitzan egin beharrekoa? Zer da heriotza eta nola jaso behar dugu? Galdera hauek gai bihurtuz Goio izeneko erizain baten bizitzaren bidez erantzun bat ematen saiatzen da, hau da 42 urteko gizon erbesteratu honi gertatutakoen artean. Horrela 40 kapitulutan banatzen den liburua plazaratzen digu idazleak. Esan bezala Goio erizainaren bizitza kontatu egiten da modu berezi batean. Istorioaren hasieran amnesia edo antzeko gaixotasun neuro-psikologiko batek jota dagoen gizon bat aurkezten digu eta honen laguntzan Maribel laguna. Biek eritasuna sendatzekotan bizitza berri bat hasiko dute eta horrela ere idazleak protagonistaren gaztaroa eta etorkizun hurbila kontatuko dizkigu hiru istorio paralelotan. Hiru istorio hauek, narratzaile desberdinak dituztenak, kontakizunaren amaieran bat egingo dute. Ondorioz hain hurbiletik bizi dezakegun istorio honek hiru eszenatoki ditu. Goioaren gaztaroa Kalaportu izeneko gipuzkoar kostaldean dagoen herrirka imajinazioan biziko da. Berriz, bere eritasunarekin hasi eta narrazioaren ardatz izango den istorioa, Hego Ameriketako Goioaren erbesteratzean aurkituko du kokalekua, Nikaragua, Kolonbia, Ekuador inguruan. Amaitzeko azken narrazioak Antartikara bidean dauden ozeanoak eta itsasoak izango ditu bere gertakizunen begirale. Denborari dagokionez, berriz, 2000 urte aldera gaixotu egiten da Goio eta orduantxe hasten da bere sendatze prozesua. Kalaportuko gaztaroa, ostera, 27 urte lehenago bizi zuen, hamabost urte zituelarik. Antartikarako bidaia, baina, sendatu bezain pronto hasiko du.

Lan hau luzea da baina benetan gozatzekoa, eta edonoren bizitzan bezala Goioarenean jende askok hartu du parte edo izan da testigu, eta horrela mota guztietako pertsonaiak egongo dira lanean zehar eta denak emango dute beraien ikuspuntua aipatutako gaien bati buruz, bai ama zein gaztaroko lagun eta familia, orainaldian eta erbestean egindako lagunak edo Antartikarako bidean itsasontzi kideak.

Kontaktari dagokionez xamurtasunez idatzi du Joseba Sarrionandiak eta mota desberdinetako narratzaile zein kontaketa estiloak erabiliko ditu. Moldeari dagokionez berriz, euskara jatorrean eta egitura sinplean adierazten da. Idazketa luzearen irakurketa arintzeko ariarekin bat ez datozen kontakizunak edota euskalki edo hizkuntza ezberdinetako txertaketak egiten ditu. Kontakizun ez kronologiko eta deskribapenez beteak aurkezten digu, edonorena izan daitekeen istorioa, edo bakar batena behar bada,

horrelako ideia ere defendatzen duelako lanean, identitate pertsonala, azken finean istorio hau Armando edo Josu Maribelen mutil-lagunak sortua da bere izaera adierazteko, bien arteko harremana apurtzen den momentu berean amaitua.

III LAGUN IZOZTUA

1 LEKU DENBORAZKO KOKAPENA

Lan honi leku denborazko kokapen bat emateko lehenik eta behin esan beharra dago obra hiru istorio paralelok osatzen dutela, haietako bat, baina, ardatza izango da edota denaren sortzaile. Irakurtzen edo ulertzen hasteko 2000 urte aldera kokatu behar gara Nikaraguako Bluefields herrian, bertako etxola batean aurkitzen da eta gure protagonista, buruko gaixotasun batek jota. Ibai zikin baten ondoan dagoen herri honetara Managuatik Maribel etorriko da izoztutako lagunari laguntzera. Laguna sendatzekotan Maribelek Urioste familiaren laguntzara joko du, familia hau Kolonbiako Barranquilla herrian bizi da eta bertan buruko gaixotasunak dituzten gaixoentzako erietxe batean Imanol familia kideak lan egiten du. Bertan sartuko dute Goio.

Goio ingresaturik dagoela Maribel Goioren lagun den Andonirengana joko du betiko lagun baten presentziak laguna sendatzen lagunduko duelakoan. Andoni Ekuadorren bizi da. Era berean lagun honek hiru istorioetako bat narratuko du, Goioren gaztaroari buruzkoa izango da. Goiok bere gaztaroa gipuzkoar kostaldean kokatzen den Kalaportu izeneko arrantzale herrixka imajinario batean igaroko du. Bertako gertakizunak protagonistek hamabost urte inguru zituztela bizi zituzten, hau da, gutxi gorabehera 2000 urtea baino hogeita zazpi bat urte lehenago. Bertako giroan Jesuiten ikastetxea, herri portua eta nasa eta hondartza edo honetatik hurbil dagoen itsasontzi abandonatua izango dira gazteen egonleku ohizkoenak.

Amaitzeko eta azken istorioa Goio sendatu ondorengo Antartikarako bidea dugu. Bide hau sendatu bezain laster gauzatuko du, 2000 urte berean eta hurrengoan, eta Antartikarainoko itsasoak izango dira abentura zientifiko honen lekuko. Ala ere itsasontzi horretako kideek ere hainbat uharte izoztuetan momentu goxoak biziko dituzte, Decepcion Island-en, Ushuaia-n, etab.

2 GAIA

Lehenago esan bezala istorio honek erbesteraturiko erizain baten bizitzan oinarritzen da eta lanean zehar gai desberdinak planteatu egiten dira, horien artean bizitzan zehar edonork galdetzen ditugun galderei buruz gogoeta egiten da, zer da zoriona? Maitasunaren auziak, laguntasunaren nondik norakoak, heriotzaren aurreko jarrera? Horrela lehenik eta behin eta istorio guztian zehar identitate eta aberriaz mintzo da idazlea. Gai honen inguruan iritzi desberdinak batu egiten ditu baina amaierarako munduko kide sentitu behar dugula eta inora erroturik bizi behar dugula ondoriozta dezakegu, askotan sentimenduek itsutu egiten gaituzte eta identitate eza sentitzera ere eramaten digute.

Bestaldetik maitasunaz eta laguntasunaz hitz egiten du Joseba Sarrionandiak. Denok arduratzen gaituen gai honi buruz oso gogoeta sakona egiten du eta sentimendu hauen ondorioz egiten ditugun ekintzei azalpen bat ematen saiatzen da. Askotan pentsatu izan dugu auzi hauetan mugak jar ditzakegula eta baita ingurukoei kontuak eskatu ahal dizkiegula. Dena den, sentimendu eta bihotzari jarraituz jarrera zentzudunak defendatzen ditu idazleak.

Heriotzari buruzko pentsamenduak ere baditu idazleak obran zehar eta hurbileko eta naturala ben gauza baten moduan sentitzera gonbitea egiten digu, hau da gaia izoztu ezean asumitu beharra dugu eta horrekin bizi, egoera aldaketa soila balitz bezala.

Amaitzeko bizitzan dugun zeregina den gaia tratatzen da istorioan zehar, esan daiteke esaldi, ideia edo gai honek aurrekoen sintesia egiten duela eta horrela lanaren izenburu eta klabea izanen dugula, izotza. Hitz honek iradokizun sakonak pizten ditu, baina batez ere noraezaren ideia eta itxitasun edo solidotzearena dakarkigu burura. Honek, baina, badu azalpen bat, lanean zehar izaki prototipiko batzuk agertzen dira omnizienteki eta hauei kritika egiten die idazleak. Idazleak lanean zehar bizitza espiritualarekiko bakea defendatzen du edozeren gainetik eta inori etiketak edo izenak jarri aurretik, zerbaiti betebeharrak ezarri aurretik norberaren ongizatea proposatzen du eta honekin batera gizarte eredu plurala eta gizaki bakarti baina zintzoa aurkezten digu; honek, liburuaren mezu bezala, arazo asko ekidingo lizkioke gizakiari pertsona bezala, eta bere gaitasunak guztiz garatzen lagunduko lioke. Kritika hau indartu egiten da ohartzen bagara lan honen sortzailea Armando dela, berak idazten du bere nortasun bereziaz edo izaera ez ohikoaz bere maitea izandakoari berri emateko.

Narrazioan zehar mota askotako pertsonaiak agertzen dira eta hauek gauzatzen dute ideia nagusi eta gai sare hau, beraien arteko maitasun harremanekin, beraien eguneroko bizitzan nondik norakoekin, beraien jarrerekin, azken finean beraien izaerekin.

Hau guzti hau ulertzeko kontuan izan behar dugu, esan bezala, istorio hau pertsona batek idatzitako liburua dela bere bizitza pertsonalaz eta mundua ikusteko era eta bertan jokatzeko moduak aztertzen dituen, beti pertsona horren barnera begiratuz. Testuan agerian dugun moduan krisi une batean sortua, maitasun erlazio baten amaieran.

3 ISTORIAREN GERTAKIZUNEN SINTEZIA EDO ARGUMENTUA

Goio da istorio honen pertsonaia nagusia. 42 urteko erizaina da eta erbesteraturik bizi da Nikaraguako herrixka batean. Atzerri horretan erbesteraturik dauden beste kideekin harremanetan egoten da eta bera gaixotasun neuro-psikologiko bat jota dagoela Maribel laguna joaten da lagunartean Gorria deitzen dutena laguntzera. Bere eritasunaren sakontasuna ikusita Maribelek neurriak hartu behar direla deliberatzen du, nolabaiteko tratamendua. Horretarako Kolonbian ezagutzen dituen Urioste anaia euskaldunengana joko du. Imanol eta Arantxa dira hauek eta Imanol medikua denez arazo psikologikoak dituzten gaixoentzako klinika batean bertara eramango dute Goio.

Goio bertan ingresatuta dagoelarik Maribel Andonirekin jarriko da kontaktuan, Andoni Goioaren laguna da eta Ekuadorren bizi da. Horrela izanda Andoni Goio sendatzen laguntzeko prest dago eta beraren eritasuna gainditu ondorengorako ekintza berria proposatuko dio: Antartikara espedizio zientifikoa. Horren aurretik Andonik Goioaren gaztaroaren urte bat kontatuko du. Goio eta bera Kalaportuko Jesuiten ikastetxean batera ikasi zuten eta lagun minak egin ziren.

Gaztetan Goio amarekin bizi zen eta honen mutil-lagunarekin. Etxean bizi zuen giro ezatsegina zela eta oso pertsona itxi eta bakartia zen gure protagonista. Batxilergoko laugarren maila ikasten zuen eta 15 urteko gazte baten moduan sexuaren inguruko gauza berriak ikasi eta liluraturik ibili zen. Maitatzea zer zen ere ikasi zuen eta are garrantzitsuago izango zitzaion bere herriaren historia ikasiko zuen, momentu honetan gertatutako gauza asko ulertuko zituen. Frankismoaren giroko egunetan ETA elkarte edo taldearen ekintzak eta antolaketa ezagutu zuen eta bestelako batzuk. Horrela sasieskolak eginenez, zigarroak errez, putetxe batean zer gertatzen zen deskubritzen, lehen sexu

harremanak izanez, etab eskolatik kanporatu zuten bere lagunekin, eta momentu honetan bizitzaren benetako prezioa ezagutuko du.

Bestalde, Maribelek bere bizitza bizi du Armando edo Josu izeneko mutilagun idazlearekin, baina halako batean bere harremana apurto eta amaitu dela konturatzen da.

Goio sendatu bezain laster Maribelek eta biek ihes egin behar dute zelatan duten espainiar polizia atzean dute eta. Ihesaldi horretan biek sexu harremanak izan eta bientzako berria izango den harremana hasiko dute baina, zoritxarrez, banandu egin beharko dute.

Banatu eta gero Goio Andonik proposatuta Antartikara joango da Edwin Walsh zientzialariaren espedizioan. Minbiziak jota dagoen gizon bitxi honen erizain pertsonala izango da. Itsasontzian Goiok Edna ere ezagutuko du, Edwinen emaztea, eta bien artean lagun giro oso atsegina sortuko da. Antartikara inguratzearekin batera gauzak gogorrakoak izango dira taldearentzat, klima oso gogorra da eta izotza eta hotza etsai bihurtuko dira. Atmosfera berri honetan taldekideen harremanak indartuz joango dira gero eta lan talde gehiago egingo dutelako: ehizarako taldeak, kanpamendua egiteko espedizioa edo sobietarrena izandako herrixkarako irteera. Bidean hainbat irlatan ere geldialdiak egingo dituzte eta bale, pinguino edo itsas-txakurrek liluratu egingo dituzte.

Etixerako bueltan, zoritxarrez, itsasoa izozten hasia da eta izotzean gelditzen dira trabaturik AEBetako helikoptero batek batzen dituen arte. Behin itsasontzitik kanpo Goio Ushuaia izeneko lurraldean geratuko da eta taldekide guztiak agurtu ondoren Maribelekin bizitza berria hasiko du, identifikazio berri eta guzti. Istorioan zehar Goio ez den izen asko hartzen ditu.

4 PERTSONAIAK

Liburuan zehar pertsonaia ugari agertzen dira eta haietako askok gaiari zentzu handiagoa ematen laguntzen dute, edota ideiarene baten ikuspuntu berriak artera ekartzen dituzte. Horrela, pertsonaia garrantzitsuenen aipamenak egitea merezi duela deritzot.

GOIO 42 urteko gizon erbesteratua dugu, lanbidez erizaina. Fisikoki argala, altua eta ilegorria da, horregatik lagunartean Gorria deitzen dute.

Istorioan zehar ikusten denagatik pertsona bakartia dela esan dezakegu eta bakardade hori maite duela. Lagunartean ere gustura dagoen pertsona da, baina bere lagunetik oso exigentea da eta errespetua eta ulertua izatea bilatzen du. Gauzei buruz hausnarketa sakona egiten duela ere ikus dezakegu, gaztaroan gertatzen zitzaion bezala, eta honek oso izaki arduratsua eta zentzuduna bihurtzen du, itsas bidaiaren agerian geratzen den moduan. Bihotzari dagokionean, berriz oso erromantikoa da eta gauzak argitzea gustatzen zaio; beharrezkoa bada ere ez zaio itxaroterik axola, Ednarekin harreman berririk ez hasteak honen ebidentzia ematen du.

Istoriora zentzuduntasun, ziurtasun eta zuzentasun irudia ekartzen du, gaurko gizartearen arabera eta are gehiago bere lagunartean arabera pertsona perfektua, Armandoren guztiz kontrakoa.

MARIBEL Goioren adin bertsuko emakumea dugu, bera ere erbesteraturik bizi da eta, beharbada, honek ez dio nahi duen modukoa izaten uzten. Berak postari lanak egiten ditu erbesteratutako kideen artean eta horregatik doa Goio laguntzera.

Esan daiteke denbora tarte txikian gauza asko gertatzen zaizkiola eta hauek barneratzea asko kostatzen zaiola; horregatik, momentu askotan, heldutasun eza

nabaritzen zaio. Bestela, oso pertsona ona da eta beti dago gainontzekoei laguntzeko prest, beharbada batzuetan besteentzat gauza gehiegi eta berarentzat ez du ezer egiten. Honen adierazgarri da Goio laguntzeagatik egiten duen guztia.

Bestaldetik, burugogor xamarra dela esan daiteke ez diolako uzten Armandori azalpenik ematen, nahiz eta bera hauek entzuteko deseatzten egon. Alor honetan ere gauzak ez ditu oso argi, baina datozen moduan hartzea gustatzen zaio, Imanolen apartamentuan erakusten duen moduan.

URIOSTE ANAIK: ARANTXA ETA IMANOL Orozkotar aita erbesteratuaren seme-alabak dira. Barranquillan bizi dira, Kolonbian, eta batak etxean lan egin du eta anaia, berriz, psikiatra edo psikologoa da. Biak oso pertsona atseginak dira eta, nahiz eta elkarren artean harreman ona izan eta asko maite izan, oso pertsona desberdinak dira.

Arantxa ama da eta militarra den senarra dauka. Bere ingurukoez eta lagunez asko arduratzen da eta oso zentzuduna dela esan dezakegu.

Imanol, berriz, bestelakoa da. Aitarengandik jasotako aberriaren maitasuna bizi du, maitatzeko era hau bere aita zenarekin batera gorrotatzen duen bitartean. Bestela, oso pertsona azkarra eta jakintsua da eta bere bizitzan gertatutakoez azterketa handiak egiten ditu, zorientasuna ez aurkitzeak bestela edatera bultzatzen du eta ia egun osoa ematen du mozkorraz.

ANDONI Goioren gaztaroko lagun mina dugu. Hau ere erbesteraturik bizi da Ekuadorren eta bertan antropologia lanak egiten ditu hainbat unibertsitate lanentzako. Gaur egun oso pertsona orekatu eta zentzuduna da, eta bere lanaren bidez behartuak laguntzen saiatzen da, adibidez hainbeste maite dituen eta desagertzeko zorian dauden tribu indigenak.

Gaztetan, berriz, bestelako pertsona zen, Goiorekin oso desberdina. Oso zentzugabea zen, nahiz eta azkarra izan eta gauzak ulertzeko batere arazorik ez izan. Bere lagunak maite ditu eta apeltaldien arabera jokutzen zuen une askotan, ondorioetan erreparatu gabe. Esan daiteke dagoeneko eta bere nerabezaroan ez bezala maitatua sentitzen zela, garai haietan familia oso lanpeturik zebilen eta, eta berarentzat ez zuten batere denborarik.

Beraren irudia garrantzitsua da lanean laguntasunaren ideiaaren ikuspuntu bat ematen duelako.

EDWIN WALSH Minbizia duen zientzialaria da. Oso pertsona kementsua da eta bizitzan proiektu asko gauzatzeko desira dauka. Esan daiteke hasiera batean oso pertsona harroa dela, nahiz eta istorioan aurrera egin ahala bere izaera bigundu eta besteen pareko ikusi bere burua. Hiltzear bizi den gaixoa da, bere minbizia oso garatua dagoelako, eta hala ere indarrak aurkitzen ditu bizitzan nahi duena egiteko eta berak heriotza bilatzeko, ez heriotzak bera topatu. Horrela izanda, ez dio batere izurik heriotzari eta hurbil sentitzearekin batera berarekin bizi da inolako neurri berezirik hartu gabe. Ez du nahi inolaz ere ez bere bizimoduan eten bat egin eta hau aldatzea zilegia iruditzen ez zaiolako eta, horregatik, bere buruaz beste egiten du itsasoan bere printzipioei jarraituz.

Heriotzaren auzian hori sentitzeko modu desberdina ematen digu.

EDNA Edwin Walshen emaztea da. Itxuraz emakume liraina da eta bere senarra maite du. Lanean aurrera egitean, berriz, hau ez da hain argi ikusten, bere senarra zaindu egiten du eta inori gauzak argitu ezean Goiorekin maitemindurik harreman bat izaten saiatzen du. Naturaltzat hartu egiten du bere senarraren erabakia eta bere bizitzan aurrera

egiten du, bere maitasunaren ideala errealitatera ekarri nahi du eta berak agintea gura du harremanean; Goiok, berriz, ezezkoa ematen dio. Ez du onartzen ezezko hori eta haserrearen haserreaz Goiorengandik aldentzea erabakitzen du. Esan bezala, une askotan zentzugabetasunez jokatzeko du eta idealez beteriko bizitza bizi nahi du, bihotzak esaten diona betez.

GOIOREN AMA ETA FAMILIA Goio klase baxuko aita gabeko familia langile batean hezi zen. Bere ama emakume langilea zen eta bere semeari etorkizun oparoa emateko lan egiten zuen, baina era berean bere bizitza berregin nahi zuen. Semearen ezetza ez zuen batere ondo onartzen, baina inolaz ere ez zuen bere hitza edo sentimendua inposatu nahi; beraz, bere semea bizitza pribatu edo pertsonaletik aldentzen zuen.

Aldentzetako batean Goio bere aiton-amonengana bidali zuen baserria. Baserriko familia langilea zen eta oso kementsua, baina gauzak etortzen ziren moduan onartzera ohitua zegoen. Honen adibide da amona eta heriotza, behin adin batera ailegatuta hil behar zutela onartzen zuten eta honen zain geratzen ziren.

HAMAIKA ETA FRANTSSES IRAKASLEA Bi pertsona oso desberdin dira, baina azken finean Goiorengan duten eraginean bat egiten dute. Hamaika zahar mozkor bat dugu; irakaslea, berriz, emakume gaztea, jantzia eta ETA taldekidea. Bere gaztaroan biak borrokalari izango dira ideal perfektu, justu eta zentzudunen alde.

Hamaikak, berriz, zahartzaroan bestelako pentsamoldea dauka eta bere ustez garrantzitsuak diren gauzengatik borrokatzea pena merezi duela dio, eta ez kontzeptu edo ideia idealengatik, hauek ez baitute benetako zoriontasuna ematen.

Goiorengan eta gaian ere duten eragina nabaria da, bizitzan praktikoak izan behar dugu eta justuak ere, gurekin eta gure inguruarekin, gauzak ondo eta zuzen eginez gero ez dago konpondu beharrik.

SWEN FOYN Istorio honetako antagonista dugu. Negozio gizona da eta Goio Antarktikara ezagutzen du. Berak bale ehizako negozio bat dauka eta Goiok bere langiletako bat sendatu zuen; hori dela eta langile moduan kontratatu nahi du. Kapitalismoaren eta materialismoaren irudia da eta liburuak ematen duen mezuarekin kontrajartzen da bere izaera.

ARMANDO EDO JOSU Josu benetako izenez eta Armando erbestean erabiltzen duen izenez dugu istorio honetako sortzailea. Okina eta idazlea da ogibidez, baina normalean bere idazkiak ez ditu amaitzen edo ez zaizkio gustatzen. Filosofia ikasitako pertsona da. Oso pertsona berezia dela esan daiteke: bakartia da eta izaera sakona dauka. Momentu askotan ez dago bere buruaz seguru eta honek besteekin komunikazioa galtzera eramaten du. Beste era batera gauza berriak dastatzea gustatzen zaio eta, horrela, bere inguruaren azterketa sakonagoa egin, baina berak bere ideiak argi ditu. Ingurukoek esango dute pertsona arraroa dela eta ideiak argi xamar ez dituela; baina berriz, eta esan bezala, oso argi dauka dena. Ikuspuntu oso pertsonalista eta berekoa du, baina izate horretan leialtasuna eta zintzotasuna erakusten du momentu oro. Zorionsua denik ez dirudi, bere zoriontasun kontzeptua oso argi duelako eta helmugara heldu ez delako, baina ziurtasun pixka batek eta ingurukoaren errespetu eta ulermenak lagundu egingo liokete.

Desesperazioaren baitan lan hau sortzen du, beraz originaltasun handiko pertsona dela agerian uzten du eta honekin batera jakintsua dela esan daiteke eta burua jantzia duela.

5 BALIABIDEAK

Hiru narrazioz osatzen den lan honek hiru narrazioaile mota ditu. Lehenengoak lehen pertsonan kontatzen du bere istorioa eta bere lagunarena. Bigarrenak, berriz, hirugarren pertsonako narrazioaile orojakilea da eta Goioren eta bere gaztaroa narrazioa digu. Azkenik bigarren pertsonako narrazioaile orojakilea dugu geroaldian hitz egiten duena.

Lanaren egituraketari dagokionez ez da lineala nahiz eta esan daitekeen hiru istorioak banan-banan hartuta linealak direla, gertakizunak modu ordenatuan eta kronologikoan gertatzen dira. Esan bezala, beraz, lana bere osotasunean ez da kronologikoki zuzena.

Espreaerari dagokionez euskara batuan idatzia dago lana; hala ere, beste euskalkietako esaera, hitz eta beste hizkuntzetako esaldiak erabili ditu, hau baina irakurketa arintzeko baino ez da egiten. Era honetan hiztegia aberatsa dela esan behar dugu eta ideia berak adierazteko hitz desberdinak erabiltzen ditu, adibidez: *bezalako, moduko, lako, erako, legezko...* edo *gaixotasuna* esateko *eritasuna, ondoeza, gaitza...* Era berean, hiztegi hau hizlariari egokiturik dago. Irakurketa arintze honetan ere idazleak ariarekin bat ez datozen kontakizunak barneratzen ditu, Kiowa indioen istorioak esaterako.

Sintaxiaz ere hitz egin beharko genuke; aipatzekoa da esaldi sinpleak erabiltzen direla, baina baita esaldi osagarri ugari ere deskribapenetan, adibidez, zehaztasuna emateko, beraz ezin da molde sinple batez hitz egin.

Baliabide estilistikoek ere bere lekua eskatzen dute aipamen honetan eta gogoratu beharra dago lehenago lanean zehar elkarrizketa edo narrazioaz aparte deskribapena nabaritzen dela. Deskribapen honen bidez eten handiak sortzen dira irakurketan eta gune berezi hauetan atmosfera ederra sortzen da idazleak bere gogoetak edo mezu subliminalak plazaratzeko. Elkarrizketak ere garrantzia handia dauka eta bai estilo zuzena edo ez zuzena tartekatzen ditu, askotan oso elkarrizketa bitxiak aurkeztuz, moldearen ikuspuntutik. Esan bezala beraz baliabide estilistikoak oso erabiliak bira, bai deskribapen asko dagoelako eta baita poetikotasun asko. Horrela adibidez metaforak edo konparazioak dira oso garrantzitsuak. Adibidez: «...denon buzoiak daude (...) umea hazteko hartuta...» (15. or), «...baina ez dira (...) zirkulu batzuk hartu ditut...» (423. or.) metafora moduan eta «...Goiok izotz lakoa ematen du...» (19. or.), «...Gabika kikildu baten moduan...» (35. or), «...besarkada bat bezain goxoa den kafe beroa emanez...» (82. or.), «...errektorearen burusoil katolikoa marmol bustia lez distiratzen du...» (206. or.)... edota pertsonifikazioak edo enumerazioak ere egiten ditu.

Laburbilduz esan beharra dago oso kontakizun landua dela eta oldeak garrantzi handia duela istorioaren mezuan, hau modu zehatzago batean transmititzen laguntzen duelako.

6 TESTUTIK HARTUTAKO TXATAL ESANGURATSU BATEN AZALPENA

Goio heldu berria da Guayaquil herrira, bertan zientzialaria ezagutzera eta lan elkarrizketa egitera, ea honek bere espediziorako kontratatzen duen. Herrira heldu bezain pronto:

«...esnatzearekin batera egunsentiaren argitasuna sentituko duzu begietan, leihoko gortinak (...) eta kaleko jendea beste sustantzia batekoa dela ematen du...» (135. or.)

Oso deskribapen polita eta erreala iruditu zait hirietan bizi izaten dugun egoeraz. Hirian bizi garenok beti daramagu erlojua biriki eta bihotzarekin batera eta honek automaten moduan ibiltzera bultzatzen gaitu. Beti dauzkagu hamaika gauza egiteko eta hitzartu bezain pronto gure gorputza bera bakarrik hasten da mugimenduan, guk ezer agindu gabe, askotan gure nahien kontra ere bai. Horrela, ere, jarraitzen dugu eguna, semaforoak autobus eta metro ordutegiak, lan ordu eta betekizunak, bazkaria... horrela ematen dugu eguna eta beraz berriro oheratzerakoan konturatzen gara ezin izan dugula nahi izan genuena egin. Errutina honetan ez dugu beraz ezer berezirik egiteko betarik eta gure inguruan bertan ezezagunak gara, ez dugu inor ezagutzen eta ez gau inork ezagutzen, idazleak esaten duen moduan bakoitza bere zereginetan doa, kalea garbitzen, lanera, egunkaria erosten...

Herri txikietan bizi den egoera berriz, guztiz bestelakoa da, denek ezagutzen dute elkar eta ia-ia japoniarrentzat bezala erlojuari begiratzea irain bat da, beharbada horrelako izaten ikasi beharko genuke. Honek baina zerbait berria irakatsi dit, bizitzaz aldatu beharrean, askotan gomendatzen zaigun moduan, nahien zerrenda egitea da eta honen arabera egunerokoa antolatzea, honela beharbada lortuko genuke zoriontsuak izaten eta era berean gure inguruan bizi direnekin justuak eta legezkoak izaten.

Bizitzaren auzi honi jarraituz beste testu zati bat aukeratu dut non Maribelek Goiok esandako hitz batzuk ulertzen saiatzen da. Honela dio:

«...gogoan geratu zait Gorriak esan didana, eta ulertu nahi nuke (...) esan du Gorriak, zirkulu batzuk hartu ditut...» (423.or.)

Istorio zati hau aukeratu badut berriro ere oso ideia hona eta gomendagarria dela iruditu zaidalako da. Horretaz gainera oso metafora polita eta sakona iruditu zait. Goiok dio uretara harri bat bota ondoren sortutako uhin edo zirkuluetatik berak batzuk aukeratzen dituela. Beraz honek iradokizun handiak sortzen ditu baina haien artean esan daiteke batzutan ez dela batere txarra geldialdi bat egitea. Horrela gauzak beste modu batera ikus daitezke eta gorputza zein arima eraberritzeko balio digu. Hau frogagarria dela uste dut eta agerian geratzen da ere gaitzik txarrenak ere bere fruitua ematen duela. Kasu honetan Goioren izozteaz ari gara baina bestelakoetan ere aplikagarria da, inoiz ez diogu ezeri uko egin behar eta aukeratzen jakin behar dugu.

Honek ere iraganari beldurrik ez izaten irakasten du, batzuetan gertatutakoak ahaztu behar dira, harria uretara bota eta merezi duenarekin jarraitu, zirkuluak aukeratu. Zirkuluen ideiak ere pertsonala izaten erakusten du, hau da inoren menpe ez bizitzen.

7 IRITZIA EDO NARRAZIOAREN ALDERDIRIK GARRANTZITSUENAK

Lehenik eta behin, esan beharra daukat idazle honen, Joseba Sarrionandiaren, irakurtzen dudan lehen obra ez dela, baina bai gehien liluratu nauena. Esan behar dut bizitzaz diharduen obra honen egituraketa ez lineala eta hiru istorio paralelotan oinarritua benetan originala iruditu zaidala. Oso modu bitxia da istorio bat narratzeko, baina ez-ohikoa eta honek garrantzia handia ematen dio biografia lan bat garatzeko moduari.

Bestaldetik, eta lanean hertsiki murgilduta gaudela pertsonaiez mintzatzea gustatuko litzaidake. Pertsonaien aukeraketa oso berezia iruditu zait, baina berean oso adierazgarria. Ez ditu pertsona asko aukeratu pertsona baten bizitzaz hitz egiten ari garela ohartzen bagara, baina bai nahikoak pertsona horren alde humanoa edo sentimenduekiko erlazionatua azaltzeko. Pertsonaia gehienak, baina nahiko prototipoak direla uste dut eta haien gainean, gehienetan, esan daiteke ez dela ezer txarrik gertatu. Gertatu baino esango nuke txarto egin dutena oso justifikaturik dutela.

Hala ere, gehien liluratu nauen pertsonaia Goio baino Armando izan da; beharbada berarekin identifikatu naizelako. Bere izaera bakartia eta pertsonalista, zentzu batean, nirearekin egiten du bat. Azkenean ulertu dut egin duena, batez ere nolatan jokatu duen harreman apurtuaren aurrean. Berak bere harremana jarraitu nahi du, baina era berean bere bizitzaren ikuspuntu aurrerakoiaz aurrera jarraituz, eta ez du betiko eta hain kontserbadorea den Maribelen edo besteen pentsamoldean geratu nahi, maitasunari dagokion pentsamoldean. Bestela ere pertsona langilea eta sentibera dela uste dut baina batzuetan oso pesimista ere bada.

Gainerakoan, esan behar dut pertsonaietako bakoitzak gai bati erantzuten diola eta denek batera Armandori erantzuna ematen diote bere bizitzaren nondik norakoez.

Beste gai batera joz, espresera edo moldea aipatzea soberan ez legokeela uste dut. Izugarri interesgarriak iruditu zaizkit idazlearen deskribapenak eta haietako askotan gizarteari egiten dion kritika. Esaterako, gehien liluratu edo hunkitu nauenak erietxeko zuriarena eta izotzaren hotzarena eta bakardadearena izan dira. Momentu horietan, hauek irakurri ditudanean, bazirudien bertara neramala nire burua eta bertako giroa bizi nuela, batez ere erietxearen zurtasuna bizi dut. Momentu horretan nekea sentitzea bezala zen edota lasaitasuna.

Oso polita iruditu zaidan beste gauza bat beste hizkuntzetako aipamenak edo esarak erabiltzea izan da, honekin gauzak gehiago girotu ditu eta.

Orain berriz, eta azkenik, liburuaren esanahi edo gaira erdutzea gustatuko litzaidake, lanaren alderik objektiboena alde batera utzita. Gaia oso aproposa eta pertsonala iruditu zait. Gaia bera baino, tratatua izan den modua gustatu zait baina, ez ohiko moduan, naturaltasunez eta topiko politetatik alde eginda. Oso era polita ere iruditu zait hain zabala den gaia galdera desberdinetan zatitzea eta gero hauek banan-banan erantzutea. Benetan interesgarria izan da guztiok pentsatzen dugun gaiak gogoeta egin ahal izatea eta orain arte izandako iritziei berriak kontrajartzea. Batez ere hau heriotzaren auzian nabaritu dut. Egia esan, orain arte gai honi buruz ez dut gogoeta handirik egin, baina ikuspuntu honek ikusmolde berria zabaldu dit, egunerokoa bizi behar da. Zoriontasuna edo ongizatea bilatzeko bideak ere beste batzuk izan daitezkeela ere ikusi dut eta harria uretara botatzearena ez legoke batere txarto, beharbada gauzei buelta gehiegi ematen diegu eta haietaz arazo berriak sortzen dugu.

Honez gain aberriaren eta hizkuntzaren ideiarekin ez nator gutuz bat, eta uste dut ez dagoela zergatik nonbaitera errotuta sentitu behar, sentsu batean bat nator gure burua atsegin izan behar dugulakoaren ideian, baina beste modu hertsiago batean.

Laburbilduz izugarri polita iruditu zaizkit deskribapenak eta oso orijinala iruditu zait lana orokorrean. Bestetik, asko gustatu zait gaia tratatzeko era pertsonala eta gaiaren aukeraketa. Momentu askotan identifikaturik sentitu naiz eta bizitza ikusteko beste ikuspuntu bat bereganatu dut, benetan izugarrizko literatur lana dela deritzot, baina literatura den beste sentibera eta xamura da. Oso erraz irakurtzen da eta bizitzaren ikuspuntu berria jasotzeko baino ez bada ere gomendagarria da irakurtzea.

IV BIBLIOGRAFIA

Lagun Izoztua, Joseba Sarrionandia. Elkar
Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa. Askoren artean. Harluxet fundazioa.